Muxikebarri, Basagoiti Etorbidea 77
48991Algorta-GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
http://www.getxo.eus

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Lehendakaritzaren Ebazpena*** **Resolución de Presidencia:** | **270 / 2023** | ***Erref.* / Ref.:** | **P.C.** |
| ***Gaia* / Asunto:** | **'RAMIRO PINILLA' ELEBERRI LABURREN LEHIAKETAREN 7. DEIALDIA / CONVOCATORIA PARA LA 7ª EDICIÓN DEL CONCURSO DE NOVELA CORTA 'RAMIRO PINILLA'** | | |
| ***Arloa* / Área:** | ***KULTUR ETXEA ADMINISTRAZIOA* / AULA CULTURA ADMINISTRACION** | | |
| ***Interesatua* / Interesado:** | | | |

**‘RAMIRO PINILLA’ ELEBERRI LABURREN LEHIAKETAREN 7. DEIALDIA ONESTEKO AKORDIO PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE ACUERDO DE APROBACIÓN DE CONVOCATORIA PARA LA 7ª EDICIÓN DEL CONCURSO DE NOVELA CORTA ‘RAMIRO PINILLA’.**

## AURREKARIAK

I. “Getxoko Kultur Etxea” tokiko erakunde autonomoak, honako helburua du, beste batzuen artean: Kultura, zientzia eta artearekin lotutako edozein ekintza garatu eta sustatu, euskal kulturaren adierazpideei eta euskararen garapen eta berreskurapenari arreta berezia eskainiz.

II.- Dirulaguntzak Ematea arautzen duen Udaleko Arautegia jarraiki, udaleko eskumena osatzen edo ordezkatzen duten erabilera publikoko edo interes sozialeko ekimenak eta jarduerak, kasu honetan, Ramiro Pinilla idazle getxotarraren memoria jasotzeko, dirulaguntzen esleipena norgehiagokaren ohiko prozeduraren bidez egin behar da. Aipatutako prozedurak hasi behar du deialdi honen bidez, Getxoko Kultur Etxeko Erakunde Autonomoaren Lehendakariak onartu behar duena.

## ANTECEDENTES DE HECHO

I.- El Organismo Autónomo Local “Aula de Cultura de Getxo” tiene, entre sus finalidades, desarrollar y promover cualquier actividad cultural, científica y artística, prestando especial atención a todas las manifestaciones de la vida cultural vasca y desarrollo y recuperación del euskera.

II.- En aplicación de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones, el otorgamiento de subvenciones para fomento de iniciativas y actividades, en este caso, recoger la memoria del escritor getxotarra Ramiro Pinilla, ha de hacerse por el procedimiento ordinario de concurrencia competitiva. Dicho procedimiento ha de iniciarse con la presente convocatoria, a aprobar por la Presidenta del Organismo Autónomo Local Aula de Cultura de Getxo.

## ZUZENBIDE OINARRIAK

I. Dirulaguntzak Ematea arautzen duen Udaleko Arautegi Orokorra, 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkurako Akordioz onetsia.

II.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorra.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos aprobada por el Pleno de fecha 23 de diciembre de 2021.

II.- Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Sinatua: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
Firmado: IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023

Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Getxo
Sinatua: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
Firmado: IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023

## AKORDIO-PROPOSAMENA

1.- 'Ramiro Pinilla' eleberri laburren lehiaketaren 7. **deialdia onestea.**

2.- **Gehieneko gastua onestea**, deialdi honen helburu den saria finantzatzera bideratua: 14.600,00 euro, 2024ko aurrekontuen kargura; ekitaldi horretan behar besteko kreditua egoteko baldintza etengarripean egingo da.

3.- Deialdia Diru-laguntzen Base- Datu Nazionalera **bidaliko** da, eta honen bitartez BAOn laburpen bat argitaratu.

## PROPUESTA DE ACUERDO

1º.- **Aprobar la convocatoria** para la 7º edición del concurso de novela corta 'Ramiro Pinilla'.

2º.- **Aprobar el gasto máximo** destinado a la financiación del premio objeto de la presente convocatoria, ascendente a 14.600,00 euros, con cargo a los presupuestos de 2024, bajo la condición suspensiva de existencia de crédito suficiente en ese ejercicio.

3º.- **Enviar** la convocatoria a la Base da Datos Nacional de Subvenciones y publicar un extracto en el BOB, a través del mismo.

## 'RAMIRO PINILLA' ELEBERRI LABURREN LEHIAKETAREN 6. EDIZIOAREN DEIALDIA

### 1. XEDEA

Kultur Etxeak publiko egin du 'Ramiro Pinilla' eleberri laburren lehiaketaren zazpigarren edizioaren deialdia, idazle getxoztarraren memoria mantentzeko asmoz.

### 2. BALDINTZAK

Lanek originalak eta zorrozki argitaragabeak izan behar dute, edozein dela bere formatua (Internet barne), bere osotasunean zein partzialki eta ezingo dute aurreko lehiaketetan saririk jaso izan. Horrez gain, ezin dira sortu adimen artifizialetik eratorritako edo horrekin lotutako sistemak, tresnak edo teknikak erabiltzearen ondorioz, ezta aurreko lehiaketetan sarituak ere. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzita egon daitezke (euskara eta gaztelania).

Baldintza horiek betetzen ez badira, idazlana automatikoki deskalifikatuko da.

Horiek aurkeztu eta gero beste edozein lehiaketatan sariren bat jasoko balu, Kultur Etxeari jakinarazi beharko zaio, hautagaitza erretira dezan.

Eleberriaren autoreak bermatuko du aurkeztutako lanaren egiletza, originaltasuna

## CONVOCATORIA DE LA 6ª EDICIÓN DEL CONCURSO DE NOVELA CORTA 'RAMIRO PINILLA'

### 1. OBJETO

El Aula de Cultura hace pública la convocatoria de la séptima edición del concurso de novela corta 'Ramiro Pinilla' con el propósito de recoger la memoria del escritor getxotarra.

### 2. REQUISITOS

Las obras deben ser originales y rigurosamente inéditas, no publicadas en ningún tipo de formato ni total ni parcialmente (incluido Internet); además, su creación no puede ser resultado de la utilización de sistemas, herramientas o técnicas derivadas o vinculadas con la Inteligencia Artificial ni haber sido premiadas en concursos anteriores. Pueden ser escritas en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (euskera y castellano).

El incumplimiento de estos requisitos supondrá la descalificación automática de la obra.

Si con posterioridad a su presentación a este concurso la obra obtuviera algún premio en cualquier otro certamen, deberá notificarse al Aula de Cultura para retirar la candidatura.

eta hura argitaratzeko eskubideek ez dutela konpromisorik hirugarrenekin.

### 3. HAUTAGAIAK

Sari horren hautagai izan ahalko dute bizirik dauden eta egoitza Espainian duten pertsonak, edozein dela ere haien nazionalitatea.

### 4. DOTAZIOA

Lehiaketako sariak honako hau hartuko du barne: 6.300 euroko saria hizkuntza bakoitzeko lan bakarrarentzat, oroigarri bat eta Alkatetzak emandako egiaztagiri bat. Obra argitaratzen bada balitz Kultur Etxeak zenbait ale erosiko ditu, gehienez ere 1.000 euroko diru-kopuruan. Saria ordaintzeko kostua Kultur Etxea erakunde autonomoak hartuko du bere gain.

Aipatutakoari horren ordainketari dagokion % 19ko deskontua egingo zaio, PFEZaren atxikipen gisa, indarrean dagoen araudia betetze aldera.

### 5. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Lanak, Getxoko Udaleko Administrazio Elektronikoaren Bulegoaren (AEB) bidez aurkeztu behar dira (www.getxo.eus). Horretarako, www.getxo.eus/ramiropinilla web orrian eta hurrengo ataletan zehazten diren jarraibideei jarraituko zaie.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 20an amaituko da.

Deialdiaren informazioa Udaleko webgunean egongo da eskuragarri (**www.getxo.eus/ramiropinilla**), eta deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Diru Laguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

Eskaerak adierazitako epetik kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira. Horrez gain, izapide gehiagorik gabe artxibatuko dira.

### 6. LUZERA

Luzera 80 eta 120 orrialde artekoa izango da, DIN A4 tamainakoak, Arial letra tipoa, 12 tamainakoa, lerroarte bikoitza, 3 cm-ko alboko marjinak, eta goiko eta beheko marjinak 2,5

El autor o autora de la novela garantizará la autoría y originalidad de la obra presentada, así como no tener comprometidos con terceros los derechos de edición.

### 3. ASPIRANTES

Podrán concurrir a este premio personas vivas domiciliadas en España cualquiera que sea su nacionalidad.

### 4. DOTACIÓN

El certamen está dotado con un premio de 6.300€ para una única obra en cada una de las lenguas, figura conmemorativa y credencial emitida por la Alcaldía, En caso de que la obra sea publicada, el Aula adquirirá ejemplares de la misma por un importe máximo de 1.000 euros. El premio se abonará con cargo al presupuesto del Organismo Autónomo Aula de Cultura.

El abono de dicho premio llevará aparejado el correspondiente descuento del 19% como retención a cuenta del IRPF en cumplimiento de la normativa en vigor.

### 5. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Las obras se deberán presentar a través de la Oficina de Administración Electrónica (OAE) del Ayuntamiento de Getxo (www.getxo.eus), siguiendo para ello las instrucciones que se especifican en esta dirección web www.getxo.eus/ramiropinilla y en los apartados siguientes.

El plazo para la presentación de candidaturas concluirá el 20 de febrero de 2024.

La información de la convocatoria estará también disponible en la Web municipal (**www.getxo.eus/ramiropinilla** ) y un extracto de la convocatoria se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia a través de la Base Nacional de Subvenciones.

La presentación de solicitudes fuera del plazo mencionado dará lugar a su desestimación y se archivarán sin más trámite.

### 6. EXTENSIÓN

La extensión será de entre 80 y 120 páginas tamaño DIN A4, letra Arial, cuerpo 12 a doble espacio, márgenes laterales de 3 cm, superior e inferior de 2,5 cm. Las páginas se numerarán desde la primera página de la



Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Sinatua: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
Firmado: IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023

cm-koak. Orrialdeak lanaren lehenengo orrialdetik hasiko dira zenbatzen; eta bertan obraren izenburua ere agertu beharko da. Kopia bakarra bidaliko da, PDF formatuan.

Ez badira baldintza horiek betetzen, lana automatikoki baztertuko da.

## 7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

**Administrazio Elektronikoaren Bulegoaren (AEB) bidez (www.getxo.eus)**

**www.getxo.eus/ramiropinilla** webgunean **bide horren bidez aurkeztea errazteko jarraibideak jasotzen dira, baita 1. Eranskina ere.**

2 PDF fitxategi aurkeztuko dira: eleberria bera eta eskaera-inprimakia (1. Eranskina), behar bezala beteta. "Deskribapena" atalean, aurkezten den eleberriaren izenburua jarri beharko da.

Aurkeztutako lanean izenburua edo lema bakarrik agertuko da; ezin da agertu idazlanaren egileak eman dezakeen izenik, izengoitirik, posta elektronikorik edo bestelako daturik. Ezta PDF fitxategiaren metadatuetan ere.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira deialdi honetan ezarritakoari jarraitzen ez dioten lanak.

## 8. SARIAK EMATEKO ERREGIMENA ETA EPAIMAHAIA

Sariak emango dira norgehiagoka sistemaren bidez. Hau da, epaimahai bat eratuko da, eta hark konparatu egingo ditu aurkeztutako lanak, haien arteko hurrenkera bat ezartzeko, jarraian zehaztutako irizpide batzuei jarraikiz. Puntu gehien lortu dituztenei proposatuko dizkiete sariak.

Epaimahaiak Irakurketa Batzorde baten laguntza izango du. Batzorde hori literaturaren munduarekin zerikusia duten lanetan ari diren edo lan horiek egin dituzten pertsonek osatuko dute, eta Kultura Etxearen bermea izango du. Batzorde horrek aurkeztutako lanen aurretiko hautaketa bat egingo du Epaimahaiarentzat adierazitako irizpideetan oinarrituta, eta deialdian obrari buruz ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du. Irakurketa Batzordeak otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoarena, 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko du.

obra, en la que deberá figurar también el título de la obra. Se remitirá una sola copia, en formato PDF.

El incumplimiento de estas condiciones dará lugar a la exclusión automática de la obra.

## 7. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

**A través de la Oficina de Administración Electrónica (OAE) (www.getxo.eus**).

En la página web **www.getxo.eus/ramiropinilla se contienen instrucciones para facilitar la presentación por esta vía, así como el Anexo 1.**

Se presentarán 2 archivos PDF: la novela en sí y el impreso de solicitud (Anexo 1) debidamente cumplimentado. En el apartado "Descripción", se deberá poner el título de la novela que se presenta.

En la obra presentada aparecerá sólo el título o lema; no puede aparecer ningún nombre, pseudónimo, correo electrónico o cualquier otro dato del que pueda deducirse la autoría de la obra. Tampoco en los metadatos del archivo PDF.

Quedarán excluidas todas aquellas obras que no se sujeten a lo establecido en esta convocatoria.

## 8. RÉGIMEN DE CONCESIÓN Y JURADO.

La concesión de los premios se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un jurado que procederá a la comparación de las obras presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados a continuación, proponiendo los premios a aquellas que hayan obtenido mayor puntuación.

El jurado estará asistido por un Comité de lectura, formado por personas que desempeñan o han desempeñado trabajos relacionados con el mundo de la literatura y cuyo criterio está avalado por el Aula de Cultura. Dicho comité hará una preselección de los trabajos presentados en base a los mismos criterios indicados para el Jurado, y verificará el cumplimiento de los requisitos establecidos en la convocatoria, relativos a la obra. El Comité de lectura cumple con lo



Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Sinatua: Firmado: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023

Epaimahaiak ebatzi ahal izango ditu ezarri gabeko gaiak.

Saria emateko ebazpen proposamena egingo da, honako irizpideetan oinarrituta:

| BALORAZIO IRIZPIDEAK | Gehieneko puntuazioa: 10 puntu |
|---|---|
| 1. Obraren sormen kalitatea, irizpide kontzeptualak, kritikoak eta obraren produkziokoak kontuan izanik. | 4 puntu, gehienez ere. |
| 2. Lanaren berezitasuna, bikaintasuna eta originaltasuna. | 2,5 puntu, gehienez ere. |
| 3. Lanaren eite formala. | 3 puntu, gehienez ere. |
| 4. Genero-ikuspegia txertatzea | 0,5 puntu, gehienez ere. |

Hautaketatik kanpo geratuko dira beren edukiengatik arraza, sexu, erlijio edo pertsonaren oinarrizko eskubideen aurkako beste edozein diskriminazio-mota sustatzen duten lan guztiak.

Epaimahaia osatuko dute letren munduko hiru pertsona entzutetsuk, eta **abuztuaren amaieran** bilduko dira. Hura nork osatzen duten publiko egingo da erabakia jakinarazten den unean. Erabakia apelaezina izango da, eta, hala erabakitzen badu, bi kategorietako sarietako edozein eman gabe utz dezake. Haien deliberamenduak sekretuak izango dira. Ebazpena artistei jakinaraziko zaie irailaren 5a baino lehen, eta publiko egingo da irailaren 13aren inguruan, Ramiro Pinillaren urteurrenean.

Epaimahaia osatzean otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoarena, 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

Epaimahaiko kideetako bakoitzarentzat 600 euroko dieta finkatu da. Irakurketa Batzordearen kide guztientzat 1.000 euroko dieta ezartzen da, izendatu beharreko kideen artean banatuko dena. Horren ordainketari dagokion deskontua egingo zaio, PFEZaren atxikipen gisa, indarrean dagoen araudia betetze aldera.

Sari hori bateragarria izango da, hala badagokio, gerora beste administrazio

marcado en el artículo 3.7 de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad entre Mujeres y Hombres.

El Jurado podrá resolver sobre cuestiones no previstas.

La propuesta para el otorgamiento del premio se realizará en base a los siguientes criterios:

| CRITERIOS DE VALORACION | Puntuación Máxima: 10 puntos |
|---|---|
| 1. Calidad creativa de la obra, atendiendo a criterios conceptuales, críticos y de la propia producción de la obra. | Hasta 4 puntos |
| 2. Singularidad, excelencia y originalidad de la obra. | Hasta 2,5 puntos |
| 3. Resolución formal de la obra. | Hasta 3 puntos |
| 4. Integración de la perspectiva de género. | Hasta 0,5 puntos |

Quedarán excluidas de la selección todas aquellas obras que por sus contenidos fomenten cualquier forma de discriminación por motivos de raza, sexo, religión o cualquier otra que atente contra los derechos fundamentales de la persona.

El jurado, compuesto por tres personas de reconocido prestigio en el mundo de las letras, se reunirá a **finales del mes de agosto** y su composición se hará pública en el momento de proclamación del fallo. Si así lo estima, podrá declarar desierta cualquiera de las dos categorías. Sus deliberaciones serán secretas. La resolución se comunicará a las personas ganadoras antes del 5 de septiembre y se hará pública en torno al 13 de septiembre, aniversario de Ramiro Pinilla.

El nombramiento del jurado cumplirá lo establecido en el artículo 3.7 de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad entre Mujeres y Hombres.

Se establece una dieta de 600 euros para cada uno de los integrantes del jurado. Se establece una dieta de 1.000 euros para la totalidad de los miembros del Comité de lectura, que se repartirá entre el número de los mismos que sea preciso nombrar. El abono llevará aparejado el correspondiente descuento como retención a cuenta del IRPF en cumplimiento de la normativa en vigor.

Este premio será compatible con los que, en

Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Sinatua: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
Firmado: IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023

Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Getxo
Sinatua: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
Firmado: IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023

batzuek, erakunde publiko edo pribatuek, nazionalek edo nazioartekoek, obra berarentzat emandako sariekin.

Saritu gabeko originalak eta gainontzeko dokumentazioa Kultur Etxean jaso ahal izango dira 2024ko urriaren 31 baino lehen.

## 9. HAUTATUTAKO LANEN TITULARREN BETEBEHARRAK

Saria jaso eta gero editatutako lan guztietan eta egindako agerraldi publiko guztietan adierazi egin beharko da, baita Kultur Etxeko logotipoa ere.

Kultur Etxeak eskubidea dauka hautatutako lanak argitaratzeko paperean edota digitalki —osorik edo partzialki—.

Sarituak iragarri aurretik, Getxoko Udaleko ordezkari bat harremanetan jarriko da sarituekin. **Saria emateko baldintza da sari banaketaren ekitaldira agertzea, betebehar hori beste inoren esku utzi gabe.** Ekitaldi hori **irailaren 13**aren inguruan egingo da, Ramiro Pinillaren jaiotzaren urteurrenaren inguruan.

Deialdi honetara aurkeztean, oinarriak eta deialdian jasotakoa oso-osorik onartzen dira.

## 10. ERREGIMEN JURIDIKOA

Deialdi hau honako atal hauetan ezarritakoaren arabera arautzen da, Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen diru-laguntzen ordenantza orokorraren lehenego xedapen gehigarrian adierazitakoaz gain (BAO, 2022ko martxoaren 16koa).

Ebazpen honetan aurreikusi gabeko alderdi guztietarako aplikagarriak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorra; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio. Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta beste edozein arauetako xedapen, haren izaeragatik aplikagarri izan daitekeena.

## 1. EBAZPENA ETA ORDAINKETA

Sari hauek emateko instrukzio organismoa izango da Kultur Etxeko administrazio unitatea.

Ebazteko organo eskuduna izango da erakundearen presidentea, 7. puntuan aipatutako epaimahaiak proposatuta.

su caso, y con posterioridad, concedan otras administraciones, entes públicos o privados, nacionales o internacionales para la misma obra.

Los originales no premiados, así como el resto de documentación, podrán retirarse del Aula de Cultura hasta el 31 de octubre de 2024.

## 9. OBLIGACIONES DEL/LA TITULAR/ES DE LAS OBRAS SELECCIONADAS

En todo material editado y en toda comparecencia pública realizada con posterioridad a la concesión, deberá hacerse constar la mención a este premio, así como el logo del Aula de Cultura de Getxo.

El Aula de Cultura se reserva el derecho a publicar en papel y/o digital -en parte o en su totalidad- los trabajos seleccionados.

Antes de la proclamación, un-a representante del Ayuntamiento de Getxo se pondrá en contacto con las personas premiadas. La **concesión del premio está condicionada a la asistencia indelegable al acto de entrega**, que se celebrará en torno al **13 de septiembre**, aniversario del nacimiento de Ramiro Pinilla.

La presentación a esta convocatoria presupone la aceptación en su totalidad de las bases y lo establecido en la convocatoria.

## 10. RÉGIMEN JURÍDICO

La presente convocatoria se regula por lo establecido en estos apartados, además de lo señalado en la disposición adicional 1ª de la Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos (BOB de 16 de marzo de 2022).

Para todos aquellos aspectos no previstos en la presente resolución serán aplicables, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pueda resultar de aplicación.

## 11. RESOLUCIÓN Y PAGO

El órgano instructor para la concesión de estos premios será la unidad administrativa del Aula de Cultura.

El órgano competente para resolver será el Presidente del Organismo, a propuesta del Jurado mencionado en el punto 7.

Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Sinatua: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
Firmado: IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

# ESKAERA
# SOLICITUD
## 'RAMIRO PINILLA' ELEBERRI LABURREN LEHIAKETAREN 7. EDIZIOA/ 7ª EDICIÓN DEL CONCURSO DE NOVELA CORTA 'RAMIRO PINILLA':
I. Eranskina / Anexo I

Euskadi 2006

| **ESKATZAILEA** / SOLICITANTE | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak**<br>Nombre y apellidos | | **NAN**<br>DNI |
| **Helbidea** (jakinarazpenetarako)<br>Dirección (a efectos de notificaciones) | | |
| **Udalerria**<br>Municipio | **P.K.**<br>C.P. | @ |
| 1 ☏ | 2 | |
| **Noren izenean egiten duzu eskaera?**<br>¿En representación de quién realiza la solicitud? | ☐ **Neure izenean**<br>En mi nombre | ☐ **Beste baten izenean**<br>En nombre de un/a tercero/a |

| **BETE LAUKIA INOREN ORDEZKARI BAZARA BAKARRIK**<br>A RELLENAR ÚNICAMENTE EN CASO DE REPRESENTACIÓN | | |
|---|---|---|
| **Ordezkatuaren izen-abizenak**<br>Nombres y apellidos de la persona representada | | **NAN**<br>DNI |
| **Helbidea** (jakinarazpenetarako)<br>Dirección (a efectos de notificaciones) | | |
| **Udalerria**<br>Municipio | **P.K.**<br>C. P. | @ |
| 1 ☏ | 2 | |

| **BESTE BATZUK** / OTROS | |
|---|---|
| **Lanaren izenburua**<br>Título de la obra | |
| **Datu biografiko laburrak**<br>Breves datos biográficos | |
| **Banketxea**<br>Entidad bancaria | |
| **Kontu korrontea**<br>Cuenta corriente | |

**ERANTZUNKIZUNEZ AITORTZEN DUT / DECLARO RESPONSABLEMENTE**



Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Getxo
Sinatua: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
Firmado: IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023

## DATUAK KONTSULTATU EDO EGIAZTATZEAREN KONTRAKOTASUNA
## OPOSICIÓN PARA LA CONSULTA O VERIFICACIÓN DE DATOS

Getxoko Kultur Etxea beharrezkoak diren kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden datu hauei buruz, lehen adierazitako laguntzak lortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Kontsulta edo egiaztapen horren **AURKA BAZAUDE**, **markatu X** batez zein zerbitzuri egiten diozun/diezun aurka, **bete ezazu Aurka egotearen arrazoien** atala eta **aurkeztu dagokion dokumentazioa.**

Markatu X batez **AURKA BAZAUDE bakarrik**:

**Getxoko Udala**

☐ Bizileku-erroldaren kontsulta

☐ Zerga-betebeharrak egunean edukitzearen kontsulta.

☐ Dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharretan egunean egotearen kontsulta.

**Poliziaren Zuzendaritza Nagusia**

☐ Nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena.

**Gizarte-Segurantzako Diruzaintza Orokorra (GSDN)**

☐ Egunean izatea GSDNren ordainketaren kontsulta.

**Bizkaiko Foru Aldundia (BFA)**

☐ Zerga-betebeharrak egunean edukitzearen kontsulta.

El organismo autónomo local Aula de Cultura de Getxo va a realizar las consultas necesarias de los siguientes datos que obren en poder de la Administración con la finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos para la obtención de ayudas, anteriormente declarados.

Si usted **SE OPONE** a dicha consulta **deberá marcar con una X** el/los servicio/s al/a los que se opone, **rellenar el apartado de Motivación para la oposición** y **aportar la documentación correspondiente**.

Marque con una X **únicamente si SE OPONE**:

**Ayuntamiento de Getxo**

☐ Consulta padrón domiciliario

☐ Consulta de estar al corriente en las obligaciones tributarias.

☐ Consulta de estar al corriente en obligaciones de pago por reintegro de subvenciones.

**Dirección General de la Policía (DGP)**

☐ Consulta y verificación de datos de identidad.

**Tesorería General de la Seguridad Social (TGSS)**

☐ Consulta de estar al corriente de pago con la TGSS.

**Diputación Foral de Bizkaia (DFB)**

☐ Consulta de estar al corriente en las obligaciones tributarias.

### AURKA EGOTEAREN ARRAZOIAK / MOTIVACIÓN PARA LA OPOSICIÓN

**KONTRAKOTASUNAREN** kasuan, jakinarazten zaizu **espedientea izapidetzen jarraitu nahi baduzu, horretarako beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko duzula.**

Adierazi, mesedez, jarraian, **aurka egotearen arrazoiak:**

Oposaketa hori edozein unetan erretiratu ahal izango duzu, Datuak Babesteko Ordezkariari idazki bat eginez HAB batean, Bulego Elektronikoan edo posta elektroniko bat bidaliz datuak@getxo.eus helbidera, NAN edo nortasuna egiaztatzen duen agiri baliokidearekin batera.

En caso de **OPOSICIÓN**, se le comunica que**, si desea continuar con la tramitación del expediente, deberá aportar la documentación que resulte necesaria para la misma.**

Indique por favor, a continuación, **el motivo de su oposición:**

Podrá retirar esta oposición en cualquier momento mediante escrito dirigido al/a la Delegado/a de Protección de Datos ante una OAC, en Sede Electrónica o enviando correo electrónico a datuak@getxo.eus acompañado de su DNI o documento equivalente acreditativo de su identidad.

**Getxo(n),** ____________________________________________

**Sinadura** / Firma

Zure datuak "DIRULAGUNTZAK" tratamenduan sartzen dira; horren arduraduna Getxoko Kultur Etxea da eta helburua du Kultur Etxeak onartutako diru-laguntzak kudeatzea. Tratamenduaren oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna eta diru-laguntza bat esleitzea da. Datuak arduradunarekin zuzeneko lotura duten erakundeei eman ahal izango zaizkie. Titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus (datuak babesteko ordezkaria) helbidera idatzizko jakinarazpen bat bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat sartuta, edo Udalaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen kudeaketa elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak

Sus datos se incorporan al tratamiento "SUBVENCIONES" del que es responsable la Getxoko Kultur Etxea y que tiene como finalidad gestionar las subvenciones que aprueba la Kultur Etxea. La base jurídica del tratamiento es el consentimiento y el otorgamiento de una subvención y podrán ser cedidos a organizaciones directamente relacionadas con la persona responsable. Su titular tiene derecho de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección postal del Ayuntamiento o a datuak@getxo.eus (delegada de protección de datos) incluyendo en ambos casos documento acreditativo de su identidad. También puede iniciar el trámite electrónico disponible al efecto en la sede electrónica de la Corporación. Para más información: www.getxo.eus/datos

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.eus/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.



Cod. Validacion: AUK/DEK/2023/270 cAWrBmUg70

Sinatua: XABIER FIDEL PAYA RUIZ (Zuzendari kudeatzailea / Director gerente) Data: 2023/09/20 Fecha: 20/09/2023
Firmado: IRANTZU URIARTE GOMEZ (Getxoko Kultur Etxeko Presidentea / Presidenta del Aula de Cultura de Getxo) Data: 2023/09/22 Fecha: 22/09/2023